Aipatzekoa da, ikastetxe batzuek zalantzak izan zituzten arren, aurreko urteko ikastetxe guztiek proiektuan jarraitu dutela. Hala ere, nahiz eta parte hartu ikastetxe bakoitzaren

egoera ezberdina izan da ikasturtean zehar eta horregatik tailer edo irteera ezberdinak burutu dituzte.

Hurrengo taulan agertzen da ikastetxe bakoitzak ikasturtean zehar egin dituen ekintzak.

IKASTETXEA	FORMAKUNTZA TAILERRA	LABORATEGI TAILERRA	HUSTUKETA	KONPOST ESPERIMENTUA	GARBIGUNERA BISITA	KONPOSTAGILUA AKTIBO	IKASLE KOPURUA
ORIOKO HERRI ESKOLA	LH 6 (x3) 2022/10/27	LH6 (x4) 2023/03/29-30				BAI	77
ZARAGUETA		LH4 eta DBH1 (x2) 2023/2/2				BAI	72
ANTONIANO		DBH1 (x2) 2023/3/28			LH5 (x2) 2023/5/24	BAI	46
LIZARDI		DBH1 (x6) 2023/4/3-4-5	DBH1 2022/12/5			BAI	150
OROKIETA	LH6 (x3) 2022/10/11	LH6 (x3) 2022/11/02	LH6 2022/10/18			BAI	73
SALBATORE MITXELENA	LH4 (x3) 2023/1/31	LH4 (x3) 2023/4/20				BAI	63
ITURZAETA	LH4 (x2) 2022/10/6	LH4 (x2) 2022/11/3				BAI	27
OIKIA		LH (x1) 2023/6/2				BAI	20
ZUMAIAKO HERRI ESKOLA		LH3 (x4) 2023/5/30-31				BAI	480
ZUMAIENA	DBH1 (x2) 2023/5/11	DBH1 (x2) 2023/5/18		DBH1 (x2) 2023/5/25		EZ	42
Guztira	13	29	2	2	2		1050

2. UNITATE DIDAKTIKOEN LANKETA

ZiSare programaren barnean bi atal bereizten dira: hondakinen kudeaketa atala eta konpostaje prozesuaren atala.

2.1. HONDAKINEN KUDEAKETA ATALA

Atal honen helburua ikasleak hondakinen sorkuntza eta hauen kudeaketaren inguruan sentsibilizatzea da.

2.1.1. Hondakinak herri mailan fitxa didaktikoa

Hondakinen prebentzioaren (murrizketa eta berrerabilera) eta bereizketa egokiaren gaia bermatzeko asmoz, unitate didaktikoak eskaini zaizkie ikastetxe guztiei era autonomoan landu ditzaten. Unitate didaktikoetan, Urola Kostako Mankomunitateak hondakinen bilketan egindako aldaketak barneratu dira. Materiala *www.zisare.org* web gunean eskegita dago, eta fitxa hauek modu betegarrian eskaini dira ikasleek ordenagailuan zuzenean lantzeko.

Bertako jarduerak maila ezberdinei egokitu eta dagokien eduki kurrikularra aberasteko moduan proposatu dira, gai ezberdinak landuz: hiri hondakinen kudeaketari buruzko kontzeptuak; sailkapenaren inguruko bakoitzaren hausnarketa; hondakinen bereizketa jokoak; mankomunitatearen errealitateari buruzko informazioa; hondakinak bildu eta kudeatzeko sistema berria; hondakin organikoen kudeaketari buruzko jakintzak, etab.

2.1.2. Garbigunera bisita

Urola Kostako Garbigune ezberdinetako ateak ireki zaizkie ikastetxeei. Helburua Garbiguneen zergatia ezagutu eta bertan jasotzen diren hondakin motak zein beraien tratamenduak eta helmuga ezagutzea izan da. Era berean, bertan ematen duten zerbitzua, nork erabili dezakeen, arauak, zer eraman eta zer ez...ezagutaraztea da.

Horretarako, hezitzailearen laguntza izan dute ikastaldeek, eta Garbigunera ongi-etorria eta sarrera orokor bat egin ostean, jolas dinamika baten bidez ikasleen partehartzea sustatu da, rol-joko moduko batekin hondakinak non bota behar diren lantzeko. Era honetan, hauen trazabilitatean ere sakondu da.

2.1.3. Birziklapenaren dama jokoa

Jokoa ikastetxeetan era autonomoan jokatu da, ikaskuntza hibridoa sustatuz, (euskarri fisikoa + digitalak uztartuz). Jolas honen helburua, gaikako bilketaren erabilera zuzena errepasatzea izan da, hondakin bakoitza zein edukiontzietan utzi behar den gogoraraziz eta zalantzak argituz.

2.2. KONPOSTAJE PROZESUAREN ATALA

Konpostajeak lotura zuzena du biohondakinekin, zehazki, hondakin organikoen murrizketarekin. Hori horrela, ikastetxe bakoitzari bere biohondakinak murrizteko aukera eskaini zaio.

Atal honetan 9 ikastetxek hartu dute parte. Ikastetxe batek aurten isurketarik ez egitea erabaki du, nahiz eta tailer ezberdinetan parte hartu duen. Bestalde, aipatzekoa da Zaragueta eta Salbatore Mitxelena ikastetxeek isurketak egiten berandu hasi behar izan dutela ikastetxeko obrak zirela eta konpostagailuak desmuntatu behar izan baitziren.

IKASTETXEA	KONPOSTAGAILU KOPURUA
ORIOKO HERRI ESKOLA	Auzokonposta
ZARAGUETA	2
ANTONIANO	3
LIZARDI	2
OROKIETA	2
SALBATORE MITXELENA	1
ITURZAETA	1
OIKIA	3
ZUMAIAKO HERRI ESKOLA	2
ZUMAIENA	2

Lotura honetan konpostagailuen kokapenak ikus daitezke: https://www.google.com/maps/d/edit?mid=19_5w67VcZbdPriJgpvisRy4Fq5wEJyk&usp=sharing

2.2.1. Konpostagailuak montatzea

Ikastetxe guztiek urteak daramatzatenez ZiSare proiektuan denek konpostailuak dituzte. Hala ere, aurretik aipatu den moduan Zaraguetan obrez ondorioz bi konpostagailu berri jarri behar izan dira. Ikastetxe honetan bertan arazoak izan ditugu konpostagailuen tapa hautsita azaldu izan baita, horregatik hurrengo kurtsoari begira konpostagailuak lekuz aldatzea planteatzen da.

Konpostagailuetan aldaketaren bat edo kokapen aldaketa eskatu duten konpostagailuen hustutzeak Mankomunitateak egin ditu baina berriak muntatu edo piezaren bat aldatzeko lana Artelatz S.L.-ek egin du.

2.2.2. Formakuntza saioak

Formakuntza saioak 50-60 minutuko iraupena du. Alde batetik ikasleei konpostajearen inguruko oinarrizko ezagutzak eskaintzen zaizkie; prozesuaren funtzionamendua, isurketak nola egin, hartu beharreko datuak, tresnen erabilera. Eta beste aldetik, zati praktikoa du, ikasleek konpostagailuaren kokapena ikas dezaten bertara gerturatzen gara eta lehen neurketak egiten dira denen artean.

Aproposena saio hauek ikasturte hasieran egitea da, horregatik gehienak urrian egin dira, nahiz eta ikastetxe batean urtarrilean egin eta beste batean ekainean (kasu berezia).

EKINTZA	ZENTRO KOPURUA	SAIOAK	TALDEAK
Formakuntza saioa	5	13	LH4-LH6-DBH1

2.2.3. Fitxa didaktikoa: Konpostaje prozesua

Konpostajearen prozesua lantzeko ikastetxeko arduradunek fitxa didaktikoa programaren web gunean izan dute eskuragarri era autonomoan lantzeko. Unitate didaktiko hau lehen eta bigarren hezkuntzako curriculumen helburuetara moldatu da, zehazki LH4 eta DBH1. mailako edukiei lotzeko asmoz, eta irakasleei tresna osagarrian eskainiz.

Fitxa honetan atal ezberdinak landu dira, besteak beste: konpostajea zer den eta egin daitezkeen mota ezberdinak, materia organikoa naturan gertatzen den zikloarekin alderaketa, konpostagailuko bizidunak, euren antolaketa eta elikadura katea, konpostagailuaren azterketa teknikoa eta laborategi lanean lagungarri diren behaketa fitxak.

2.2.4. Laborategi tailer praktikoa: Konpostaje prozesua

Tailer honen helburua konpostaren prozesuan parte hartzen duten izaki bizidunak ezagutzea da, ornogabeetan zentratuz gehienbat. Horretarako konposta eramaten da ikasgeletara eta talde txikitan bertako xomorroak bilatu behar dituzte. Hasiera batean begi bistaz eta gero laborategiko tresnen laguntzaz hauek aztertu eta ondoren gako dikotomiko bidez sailkatu egiten dira. Era berean kate trofikoa eta elikadura lantzen dira.

Erabat praktikoa den saioa da eta arrakasta handikoa. Saio hauek bigarren eta hirugarren hilekoan egiten dira, behin ikasleak isurketekin martxa hartu dutenean.

EKINTZA	ZENTRO KOPURUA	SAIOAK	TALDEAK
Laborategi tailerra	10	29	LH1-LH2-LH3-LH4-LH6-DBH1





2.2.5. Konpostagailu hustuketak

Hustuketa bi modu ezberdinetan planeatu zaie ikastetxeei, batetik, guk hustuketa materiala utzi eta beraiek egitea hustuketa eta bestetik, hustuketa gidatua izatea, hau da, ikasleek egiten dute hustuketa baino Artelatzeko kideak bertan gaude, materiala eta ikastaldea antolatuz.

Ikasturte honetan bi hustuketa izan dira; Lizardi eta Orokietan, biak kurtso hasiera aldera eta bietan Artelatzek gidatuta.

EKINTZA	ZENTRO KOPURUA	SAIOAK	TALDEAK
Hustuketa	2	2	LH6-DBH1

2.2.6. Konpostaren erabilera

Aurretik aipatu den moduan Zumaiena ikastetxeak aurten isurketarik ez egitea erabaki du. Hala ere, ZiSare programan parte hartu eta konpostajearen inguruko interesa azaldu du. Horregatik formakuntza saio eta laborategi saioak burutu dituzte, baina horretaz gain, konpostaren erabilera nolakoa den ikusteko esperimentu saio bat sortu da.









3. JARRAIPEN BISITAK

Ikasturte osoan zehar konpostagailuak era egokian mantentzen direla eta prozesuak aurrera egiten duela ziurtatzeko jarraipen bat egiten da. Horretarako Artelatz S.L.-ko hezitzaileek kontrol bisitak burutzen dituzte, 4 guztira, neurketa ezberdinak burutuz. Kontrol bakoitzaren ostean ikastetxeei euren konpostagailuaren egoeraren berri eman zaio, hobetzeko aholkuak eskainiz.

- 1. jarraipen bisita: ikasturte hasieran prozesuari hasiera emateko, irailak 21.
- 2. jarraipen bisita: prozesuaren jarraipena egiteko, martxoak 17.
- 3. jarraipen bisita: prozesuaren jarraipena egiteko, maiatzak 18.
- 4. jarraipen bisita: ikasturte amaieran konpostagailuak ixteko, ekainak 28.

Hurrengo urterako pare bat lan geratu dira egiteko, ikasturtea hasi eta berehala:

- Zaraguetako bi konpostagailuak herri langileek hustu eta jarraian ZiSareko arduradunak konpostagailuak lekuz mugitu beharko ditu ikastetxe bazterretik baratza duten eremura. Konpostagailu bateko tapa hautsita dago.
- Oikian eskuin aldeko konpostagailua herri langileek edo ikasleekin (erabakitzeko) hustu ondoren gainontzeko konpostagailuen ezkerretara mugitu beharko da eta tapa berria jarri hautsita duen konpostagailuari.



Zaragueta



Oikia

1. Eranskina: *Ikasturteko kontrol diagnostikoak.*

4. KOMUNIKAZIO PLANA

Hezitzaileak eta ikastetxeetako ZiSare arduradunek ikasturte osoan zehar kontaktu estua izan dute posta elektroniko bidez. Aholkularitza eskaini da momentu oro eta material beharra izan den bakoitzean baliabideak eskaini dira.

Horretaz gain, ZiSarek Urola Kostan blog bat du: *www.zisare.org*. Bertan bi atal bereizten dira: publiko orokorrari zuzendutakoa, non, konpostari buruzko albiste, ohar eta informazioa aurkitu datekeen eta atal pribatua, ikastetxeei zuzendutakoa, gako bidez sartzen dena.

Bertan programa garatzeko oinarrizko informazioa eta unitate didaktikoak eskuratu ditzakete irakasle eta arduradunek, baita bestelako material osagarriak ere: landa koaderno digitala, segurtasun eta osasun neurrien arauak, etab.

Borobiltzeko, ikasturte amaieran prentsa ohar bat idatzi da urtean zehar egin diren ekintzak zabaltzeko eta lortu diren emaitzak plazaratzeko.

2. Eranskina: *Prentsa oharra.*

5. EBALUAZIOA

5.1. EBALUAZIO TEKNIKOA

ZiSare programan metodologia zientifikoa erabiltzea proposatzen da. Biohondakinen kudeaketaz gain, konpostagailu barruan gertatzen den prozesuaz jabearazi nahi dira ikasleak. Hori horrela, astean behin koaderno batean hainbat ezaugarri neurtu eta hauek jasotzea eskatzen zaie ikasteei. Horretarako landa koadernoak sortu dira.





2022-2023 ikasturtean zehar, ikastetxe bakoitzean egoera ezberdinekin topatu gara. Hori dela eta erritmo, dinamika eta antolamendu ezberdinak izan dituzte, horrekin batera emaitza ezberdinak lortuz.

Ikastetxe gehienek datuak bildu eta partekatu dituzten arren, arrazoi ezberdinak direla eta ikastetxe batzuen datuak ez ditugu eskuratu. Kasu horietan, ordea, konpostagailuaren betetze maila kontuan hartuta, ikasturtean zehar nola funtzionatu duten jakinda edo astero zenbat kubo bete dituzten esanda estimazio bat egin da (gorriz agertzen diren datuak estimatutako datuak dira).

Hurrengo taulan ikastetxeka lortu diren datu esanguratsuenak idatzi dira. Bertan, zenbat materia heze eta zenbat materia lehor isuri dituzten agertzen da, kg-tan. Hori kontuan izanda eta ZiSare proiektuan parte hartu duten ikasle kopurua jakinda, zenbat kg ikasleko murriztu diren kalkulatu da.

Ikastetxea	Isuritako mat. hezea (kg)	Isuritako mat lehorra (kg)	GUZTIRA (kg)	Ikasle kopurua	Murrizpena (kg/ikasleko)
Antoniano	100,0	40,0	140,0	46	3,04
Iturzaeta	104,5	36,5	141,0	27	5,22
Orioko herri eskola	22,5	23,1	45,6	77	0,59
Orokieta	210,1	144,3	354,4	73	4,85
Salbatore Mitxelena	61,4	2,6	64,0	63	1,02
Oikia	69,4	55,5	124,9	20	6,24
Lizardi	92,5	55,5	148,0	150	0,99
Zaragueta	21,1	8,4	29,5	72	0,41
Zumaiena	0,0	0,0	0,0	42	0,00
Zumaiako Herri eskola	370,0	111,0	481,0	480	1,00
TOTAL	**1.052**	**477**	**1.528,42**	**1.050**	**1,46**

Taula aztertuz gero, ikasturtean zehar 1528,42 kg biohondakin murriztu direla ikus daiteke. Tona t'erdi pasata. Materia organiko zein egituratzailearen isurketak kontsideratzen dira biohondakinak. 1050 ikaslek parte hartu dutela kontuan izanda, ikasleko 1,46 kg hondakin organiko murriztu direla kalkulatzen da.

Aipatzekoa da Zumaiena ikastetxeak proiektuan parte hartu duen arren eta beraiekin harremanetan jarri garen arren, ikasturte honetan ez duela isurketarik egin. Era berean, Zaragueta eta Salbatore Mitxelena ikastetxeek ikasturtean zeharreko obrak medio konpostagailuak martxan ikasturte erdialdera jartzeko aukera izan dute. Egoera horiek azken emaitzan balore baxuagoak lortzea eragin du.

5.2. IRAKASLEEN BALORAZIOA

ZiSare programan parte hartu duten ikastetxeetako arduradunei ikasturte amaieran balorazioa egitea eskatu zaie.

Konpostaje prozesuan parte hartu duten 10 ikastetxeetatik 8 balorazio jaso dira.

3. Eranskina: *Irakasleen balorazioa.*

Ondoren agertzen dira datuen laburpenak:

- Saio presentzialak (formakuntza eta laborategi saioak) oso modu egokian baloratu dituzte.

- Unitate didaktikoak, garbigunera bisita, birziklapen jolasa eta hustuketa gehiengoak egin ez dituen arren, egin dutenek balorazio oso ona egin dute.

- Bestelako baliabide materialak (motxila, landa koadernoa…) ere modu egokian baloratuak izan dira.

- Baliabide pertsonalak: Artelatz S.L.-ko hezitzailearen aholkularitza eta laguntzaren balorazioa positiboa izan da.

- Proiektua orokorrean ongi eta oso ongi baloratua izan da, eta denek hurrengo urtean ZiSare proiektuan jarraitzeko asmoa dute.

Beraz, orokorrean balorazio guztiak ikusita, arduradunen aldetik ZiSare programa arrakastatsua izan dela ondoriozta dezakegu, erantzunetan jaso ditugun balorazioak baikorrak izan baitira. Iradokizunetan errepikatu den gakoa Artelatz S. L. enpresarekin lana erraz eta gustura egiten dela izan da.

5.3. PROIEKTUAREN EBALUAZIO OROKORRA

Artelatz S.L.-en aldetik, 2022-2023 ikasturtean zeharreko proiektuaren balorazio orokorra positiboa izan da, egoera erabat normaltasunera itzuli dela ikusi baita. Proiektuak urteak daramatza ikastetxeetan eta askok barneratuta dute euren programan. Hala ere, urteetan ikastetxe eta hezitzaileen artean sortutako konfiantza eta harreman estuak lana asko erraztu du, programaren arrakastaren gako izanik.

Azpimarratzeko puntuak:

- Kurtso hasieran ZiSaren parte hartzeko ikastetxe batzuk zalantzak izan zituzten arren, kurtso amaieran ikastetxe guztiek hurrengo urtean jarraitzeko asmoa helarazi digute.

- Programan parte hartu duten hainbat ikastetxek baratza proiektua ere badute eta erlazio zuzena egiten dute ZiSareko konpostajearekin. Mankomunitateak konpost heldua eskuratzeko eskaini dien erraztasuna eskertu dute.

- Programako ikastetxeetako koordinatzaileak eta Artelatz S.L. enpresako programaren arduradunak duen hartu-eman estua ezinbestekoa da programaren garapena ziurtatzeko.

- Programaren arrakasta ziurtatze aldera, konpostaje atalari dagokionez, programaren kronograma betetzen dela ziurtatu behar da, lehen hiruhilekoan formakuntza saioak eta hustuketak eginez, 2. hiruhilekoan, laborategi tailerrak eta 3. hiruhilekoan, hustuketak eginez, beharko balitz.

- Landa koadernoaren erabilera eta metodologia zientifikoa sustatzea garrantzitsua ikusten dugu, aurten ere gutxi izan baitira datuak era egokian bildu dituztenak. Konpostajea datu bilketarik gabe funtsik gabe geratzen dela iruditzen zaigu. Horregatik funtsezkoa da proiektuari behar adina denbora eskaini eta lehentasunak jartzea.

- Zumaienan egin den konpostaren erabilera saioak arrakasta handia izan du eta etorkizunera begira gainontzeko ikastetxeetan planteatu daitekeen tailerra izan daiteke.

Urtero bezala, memoria honetan proiektuaren zenbait alde ahul eta indar puntu azpimarratu dira. Guztiak dira aintzakotzat hartu beharrekoak etorkizun batean, proiektuak aurrera jarraitu dezan.

Artelatz S.L. enpresak ZiSare proiektuan sinesten du eta lan taldearen ilusio eta indar haundiak bertan jartzen ditu proiektuaren arrakasta lortze aldera.

Tolosa, 2023ko ekainean

6. ERANSKINAK

1. Eranskina: *Ikasturteko kontrol diagnostikoak.*

IKASTETXEA: **ZARAGUETA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Eskolaren hesitik kanpo, frontoia eta baratzen artean.									
Bi konpostagailu, bat materia lehorra gordetzeko eta bestea isurketak egiteko.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Obretan daude eta 3 konpostagailuak puskatuta daude.	Konpostagailu zaharrak kendu, toki berri bat definitu eta udalaren erantzunaren zai berriak jartzeko. Agian kandatuak behar.
2	2023/03/17							2 Konpostagailu berri jarri dira. - Ezkerrekoan lehorra. - Eskuinekoan ohea egin da eta Aste Santutik bueltan hasiko dira isurketekin.	
3	2023/05/18	%30	100	7	27	17	Fuertea	Isurketa kopururako estrukturante asko dago botata. Gogoratu zuen isurketen arabera gehitu behar duzuela, proportzioak mantenduz.	Usain nahiko fuertea du, behar adina nahastu ez denaren seinale.
4	2023/06/28	%30	30	7,5	27	22		Konpostagiluak lekuz aldatu behar dira: baratza duten eremura. Tapa hautsita. Oso lehor dago, isurketa kantitate gutxi. Konpostagailuak itxi dira.	

IKASTETXEA: **OROKIETA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Eskolaren kanpoan, ibaia pasata. Baratza duten tokian.									
Ezkerreko konpostagailua.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							%70 beteta baina goiko geruza baratzeko soberakinak dira (udan guraso elkarteak botata) eta adaxka handiegiak.	Hustea komeni da.
2	2023/03/17	%90	60	6	45	15		Oso ondo nahastua. Aste santu bitartean konpostagailu honetan isurketak egiten jarraituko dute. Iraila bitartean konposta heldu eta irailean hustuketa egin formakuntzarekin batera.	
3	2023/05/18	%70	100	7,5	25	17		Hondakin zati handiak. Konpostagailua ixteko asmoa eta eskuinean isurketak egiten hastekoa.	Lehor kantitate handia gainetik botata eta nahastu gabe, gogoratu nahastea. Hondakinen tamaina kontrolatu.
4	2023/06/28							Itxita	
Eskuineko konpostagailua.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Lehorra gordetzeko.	
2	2023/03/17							Lehorra gordetzeko.	
3	2023/05/18							Lehorra gordetzeko.	
4	2023/06/28	%45	%100	7.5	36	20	Ona	Hezetasun handia. Tamaina oso egokia.	

IKASTETXEA: **ANTONIANO**									
Konpostagailuaren kokalekua: Baratzaren ondoan.									
3 konpostagailu.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							3 konpostagailu daude, denek ohea eginda dute.	Zehaztu isurketak egingo dituzten ala ez.
2	2023/03/17	%60	100	7	55	15	Fuertea	- Eskuinekoa itxita. - Erdikoan materia lehorra. - Ezkerrekoan isurketak. Konposta oso ondo dago eginda, baina hezeegi. Ahozapiak eta poltsa konpostagarri bat atera dira.	Hezeegi dagoenez lehor gehiago gehitu. Usainak adierazten duenez gehiago nahastu.
3	2023/05/18	%70	100	7,5	25	11	Fuertea	- Ezkerrekoan isurketak. Konposta hezeegi eta gutxi nahastuta, horren ondorioz usain fuertea. Plastikozko poltsa bat aurkitu da.	
4	2023/06/28	%80	%70	7,5	33	20	Ustel usaina	Usain handia, gehiago nahastu behar. Oso heze konpostagailua.	Lehorra gehitu eta ondo nahastu.

IKASTETXEA: **SALBATORE MITXELENA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Ikastetxeko teilatuan.									
Konpostagailu bakarra.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Obrak direla eta terrazako konpostagailua kenduta. Bankala jarri eta lurrez bete nahi dute konpostagailua jartzeko. Neurriak: - Luzera: 1.6 metro - Zabalera: 0.8 metro - Altuera: 0.5 metro Bankalaren barrukaldea plastikoz estali nahi dute terrazako lurra hainbeste ez zikintzeko.	
2	2023/03/17	%40	100	7	38	15		Ez dira proportzioak mantentzen, lehor gehiegi dago isurketa kopururako. Eltxo kopuru handia (horregatik lehor asko botata seguraski. Normala da hego haize eta tenperatura altuekin).	Heze kopuruaren arabera gehitu lehorra. Orain hasieran isurtzen dena konpostagailuan dagoen lehorrarekin nahastu. Eltxoen presentzia jaisteko isurketak egin ondoren ondo nahastu eta hondakinak ez utzi agerian.
3	2023/05/18	%50	100	8	20	18		Ez dago orekarik materia lehor eta hezearen artean. Nahasterakoan azpitik materia lehorraren geruzak ageri dira. Eltxoen presentzia nabarmena da, hori dela eta posible da horrenbeste lehor bota izana.	Isurketa kantitatearen arabera gehitu lehorra, orekatuta.
4	2023/06/28	%60	%50	7.5	30	20		Tapa irekita aurkitu da. Aurreko isurketekin gehitutako lehorra azpian eta nahasterakoan orekatuta geratu da. Konpostagailua itxi da.	Lorontzietako lurra ez da konpost bihurtuko, espazioa besterik ez du okupatzen.

IKASTETXEA: **LIZARDI**									
Konpostagailuaren kokalekua: Patioko belazean, itzaletan.									
2 konpostagailu; ezkerrekoan materia lehorra gorde, eskuinekoan isurketak.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Eskuinekoa %50 betea 2020ko konpost zaharrarekin. Ezkerrekoan kandatua hautsia zegoenez hondakinak daude barruan. Kandatuak hautsita daude.	Ezkerrekotik hondakinak atera. Eskuinekoa hustu behar da. Konpostagailuak bereizteko kartelak ipini.
2	2023/03/17	%40	75	7	50	15	Fuertea	Konpostagailua kapetan banatua dago, gaineko geruza material lehorrarena da eta azpian material hezearen geruza dago bloke bat egina. Zati handiak Ez dago nahastua, aireztatzea behar du.	
3	2023/05/18	%60	100	7	32	17	Fuertea	Oso ondo egina, tamaina egokia.	Hezeegi, lehor gehiago gehitu behar.
4	2023/06/28	%80	100	7,5	27	22	Fuertea	Isurketa kantitaterako lehor gehiegi dago botata. Usain fuertea du. Konpostagailuak itxi dira.	

IKASTETXEA: **ITURZAETA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Baratzaren ondoan, aterpe azpian, itzaletan.									
A= Konpostagailu bakarra.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21	%45	10	7,5	21	21		Azkeneko geruza (20cm) baratzeko belar eta landareez osatua, zati handiak. Kendu egin dira.	Isurketak egiten hasi behar.
2	2023/03/17	%60	100	5,5	30	22		Gainean baratzeko sobrak botata, lur eta guzti. Arazoa lurrarekin batera belar txarren haziak ere bertan daudela. Gainean botatako belar horiez gain, konposta ondo egina dago.	
3	2023/05/18	%60	100	7	32	17	Fuertea	Tamaina oso ona. Heze xamar, estrukturante gehiago gehitu.	
4	2023/06/28	%50	100	7,5	28	22	Ona	Tamaina oso ona eta usain ona. Konpostagailua itxi da.	

IKASTETXEA: **OIKIA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Patioko belazean.									
3 konpostagailu dituzte.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21	%50	100	5,5	45	11	Fuertea	-Ezkerrekoa lehorra gordetzeko. -Eskuinekoa ohea eginda, isurketekin hasteko. -Erdikoan egiten dira isurketak. Isurketak egiteaz utziko da.	Ingurua txukundu. Ondo nahastu behar da isurketak egiten diren aldiro eta lehorra gehitu.
2	2023/03/17	%40	100	7	50	22	Fuertea	- Ezkerrekoa lehorra gordetzeko. -Eskuinekoa itxia, ez da isurketarik egiten baina nahasten jarraitzen da oso heze dagoelako. Arazoa izan daiteke lurra aldapa behera egotea eta ondorioz ura bertan pilatzen da, horregatik hustu ondoren konpostagailua mugitzea pentatzen da. -Erdikoan duela hilabete hasi dira isurketak egiten eta ondo.	
3	2023/05/18	%60	80	7	38	16	Fuertea	- Ezkerrekoan materia lehorra. - Eskuinekoa itxita. - Erdikoan isurketak. Euli kopuru oso handia. Azkeneko isurketak nahastu gabe egoterakoan bertan azaltzen dira. Inguruko belardiko velar moztu berria bota da, kontuz tamainarekin, asko zaildu du nahastea!	Orokorrean oso ondo dago, proportzioak mantentzen dira. Esandakoa, azkeneko isurketak agerian baina egun berekoak. Nahastu eta estrukturantea bota dakizuen bezala.
4	2023/06/28	%70	%70	7,5	32	20		Lehorraren tapa puskatuta. Isurketarik ez izaterakoan lehor aurkitzen da konpostagailua. Usain fuertea, gutxi nahastua dagoelako. Kandatuak dituzte hortaz beraiek itxiko dituzte eskola ixterakoan.	Hurrengo kurtsoan eskuineko konpostagailua lekuz aldatu behar da: beste konpostagailuen ezkerretara.

IKASTETXEA: **ZUMAIAKO HERRI ESKOLA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Sarrerako itxitura batean, itzaletan. Pin-poneko mahai ondoan.									
2 konpostagailu dituzte.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							2 konpostagailu eta bietan isurketak - Ezkerrekoa sasiz inguratuta eta ezin izan dira neurketak egin. %20 inguru beteta, adar handiak, iazko isurketak… - Eskuinekoa %10 beteta, ohea eta iazko isurketa gutxi batzuk.	Eremua txukuntzea gomendatu. Ezkerreko konpostagailua hustu behar eta lehorra gordetzeko utzi. Eskuinekoan egin isurketak . Kartelak jarri ez nahasteko
2	2023/03/17	%50	100	8	25	22		Ingurua txukundu da eta konpostagailu bakoitzak kartela du. - Ezkerrekoa lehorra gorddetzeko. - Eskuinekoan nabarmena da isurketak egiten direla baina ez dira orekatuak egiten eta ez da nahasten. Peiorekin hitz egin da eta esan da astero berdea botatzean marroia gehitu eta ondoren nahastea komeni dela. Poltsa organikoak aurkitu dira.	
3	2023/05/18	%45	100	8	25	16		Gaineko geruzak hondakin berdeak soilik ikusten ziren arren, behin nahastuta proportzioak ondo mantentzen direla ikusi da. Tamaina oso handia eta nahastea eragozten du.	Gogoratu isurketak egiten diren bakoitzean jarraian nahastu behar dela. Zati txikiagotan bota.
4	2023/06/28	%60	%10	7,5	27	20		Gaineko 40cm-ak lastoa da, eta horren azpian azkeneko isurketak. Ezinda nahastu lastoa dela eta. Kandatua dutenez itxita mantentzen dira.	

IKASTETXEA: **ZUMAIENA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Baso magikora joateko bidean ezkerretara.									
2 konpostagailu									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21	%40	10	8	20	20	Egur usaina	Ezkerrekoa lehorra gordetzeko zegoen baina isurketak hemen egiten hasi. Azpitik mugitzen da, hortaz, bridekin lotuko da eta ohea egin. Eskuinekoa iaz isurketak egiteko erabiltzen zen, lehorraren azpian 5cm geruza konpost. Aurten materia lehorra gordetzeko erabiliko da.	
2	2023/03/17							Ezkerrekoa hutsa dago. Eskuinekoan ohea eginda. Ez da isurketarik egin.	
3	2023/05/18							Ez dago isurketarik.	
4	2023/06/28							Konpostagailuak itxi dira.	

ORIOKO IKASTOLA	Auzokonpostan parte hartzen dute.	Kudeaketa mankomunitateak darama.

2. Eranskina: *Prentsa oharra.*

ZISARE PROIEKTUA. URTEZ URTE AURRERA PAUSUETAN

2022-2023 ikasturtean zehar ZiSare proiektuan Urola Kostako hainbat ikastetxek hartu dute parte. Ikastetxe hauek Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia udalerrietan kokatzen dira. Urteak dira dagoeneko proiektua ikastetxe gehienek euren programan barneratuta dutela, eta azkeneko pare bat urteak arraro xamarrak izan diren arren, aurten normaltasun osoz burutzeko aukera izan dugu.

Guztira 10 ikastetxe izan dira konpostaren eta hondakinen murrizketa eta berrerabileraren munduan buru belarri ibili direnak. Bakoitza bere erritmoan noski, baina denak ilusioz. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako 1050 ikasle izan dira ikasturte honetan proiektuan parte hartu dutenak.



Agenda 2030eko helburuekin bat, proiektuaren helburua ikastetxeak sortzen dituen hondakin organikoei irtenbide jasangarri bat eskaintzea izan da, era berean ikasleen kontzientziazioa piztuz. Ikasleak protagonista bihurtuz, beraiek sortzen dituzten hondakin organikoekin zer egin daitekeen ikusteko aukera izan dute. Hamaiketakorako ekarritako platanoaren azala edo bazkarian soberan geratutako dilista platera nola era naturalean eta beraien begi aurrean konpost bihurtzen den ikusi eta aztertzekoa.

Horretarako, ikasturte hasieran konpostari buruzko 13 formakuntza saio burutu ziren 5 ikastetxeetan, naturan berez gertatzen den prozesua konpostagailu barnean nola errepikatzen dugun azaltzeko. Horrekin batera konpostagailuak martxan jarri ziren. Prozesua behin abian, laborategi tailerren ordua iritsi zen. Guztira 29 laborategi tailer egin dira eta ikastetxe guztiek nahi izan dute parte hartu. Bertan, gure konpostagailu barruko protagonistak aztertu genituen eta haien lana mirestu. Saio praktikoen bidez organismo deskonposatzaileak ezagutu eta konpostagailu barnean hauen papera zein den ikertu genuen. Arrakasta handia izan du eta ikasleak bereziki gustura ibili dira lanean.



Behin konposta lortuta horren erabilera ere aztertzen ibili gara. Ikastetxe batzuek baratza dutenez konpostaren erabilera jakina da, baina, ez dutenen artean esperimenturen bat egiteko aukera ere izan dugu.







Saio puntualez gain, ordea, ikasturte osoan zeharreko lana izan dute ikastetxeek. Metodo zientifikoaz baliatuz, ikastetxe gehienek euren ordutegietan astero konpostagailua aztertzeko tartea hartu dute eta bertako hainbat datu biltzekoa; tenperatura, pH, hezetasuna, isuritako material kantitatea…

Datu horiei esker, ikasturte amaieran ikastetxe bakoitzak zenbat kg hondakin organiko murriztu dituen jakiteko aukera izan dugu, eta hain zuzen ere, Urola Kostako Mankomunitatean parte hartu duten ikastetxeek 1528 kg hondakin organiko murriztu dituzte; tona t'erdi pasatxo! Proiektuan lanean ibili diren ikasle kopurua kontuan hartuta, hondakin organikoen kudeaketan murrizketa garrantzitsua eragin dute; 1,46 kg/ikasleko. Kontuan hartuko bagenu 4 herri horietako biztanle kopurua eta datu hauekin estimazio bat egingo bagenu, biztanle guztiek gaikako sailkapena aurrera eramango balute 32000 kg hondakin organiko murriztuko genituzkela aurreikusten da. 32 tona!

Zifrez gain, proiektuaren asebetetze maila kontuan izanda eta ikasle gehiengoaren inplikazioaz jabetuta, hondakinen kudeaketarako irtebideen kontzientzian aurrera pausuak eman direla sinesten dugu.

Orain ikasturtea amaituta, ikastetxeetako konpostagailuak geldirik mantenduko dira, geldi baina aktibo, hurrengo ikasturtean jarraitzeko gosez.




3. Eranskina: *Irakasleen balorazioa.*

IRAKASLEGOAREN BALORAZIOA

Ikastetxea


8 respuestas



BALIABIDE MATERIAL ETA DIDAKTIKOAK

1- KONPOSTAJERAKO FORMAKUNTZA tailer teoriko-praktikoa.

8 respuestas




2- LABORATEGI SAIOA

8 respuestas




3- HUSTUKETA TAILERRA

8 respuestas




4-GARBIGUNERA BISITA

8 respuestas




5-BIRZIKLAPENAREN DAMA JOLASA

8 respuestas




6-HONDAKINEN UNITATE DIDAKTIKOAK (LH-DBH)

8 respuestas



7-KONPOSTAJE PROZESUAREN UNITATE DIDAKTIKOAK (LH-DBH)

8 respuestas



8- ZiSare MOTXILAren edukia (termomentroa, higrometro eta pHmetroa...)?

8 respuestas



9- Isurketetarako banatu den LANDA KOADERNOA?

8 respuestas



13-Baliabideren bat faltan bota al duzue? (kuboak, eskularruak...)

4 respuestas

Ez, behar izan dugun guztia eskura izan dugu.

Zerbait falta izan dugunean erraztasun erabatekoa eskaini diguzue berehala lagunduz. Askotan gure atzetik ere ibili beharra izan duzue, bata edo bestea dela. Lan ona egin duzuela iruditzen zaigu. Erraza izan da zuekin jardutea, eskerrik asko!


Pisu on bat, baina esan zeniguten hori Eskolak erosi behar zuela.

Excela bete behar bada, koadernoa digitala izatea eta hasieratik betetzen hastea.

BALIABIDE PERTSONALAK


1-Orokorrean Urola Kostako Mankomunitateak ZiSare proiektua aurrera eramateko dituen konpostaje TEKNIKARIEN (Aitziber eta Olatz) LAGUNTZA ikasturtean zehar.

8 respuestas



2-Tailerrak, bisitak, bilerak...aurrera eraman dituzten TEKNIKARIEN LANA orokorrean.

8 respuestas




3-Nola baloratzen duzu konpostagailuaren KONTROLA URTEAN LAU ALDIZ egitea? (Bat irailean, beste biak ikasturtean zehar eta azkena ekainean)

8 respuestas




4- EGITURATZAILEA (material lehorra) edo KONPOSTA eskatu duzuenean arrazoizko epe batean eraman zaizue?

8 respuestas



5- KONPOSTAGAILUAK montatu, aldatu...behar izan direnean arrazoizko epe batean egin dira lan hoiek.

8 respuestas



ISURKETAK KONPOSTAGAILURA


1-Zein maiztasunarekin egin dituzue isurketak konpostagailura?

8 respuestas



2- DATU BILKETA: konpostagailura hondakinak isuri dituzuen...

8 respuestas



3-Arazoak aurkitu dituzue isurketak edota datu bilketa egiterako orduan? Zeintzuk?

7 respuestas

Konposta egiten Aste Santua eta gero hasi gara obrak zirela eta; datuak ez ditugu hartu ze uste dugu termometroa eta Phmetroak izorratuta daudela eta

Ez, batzuetan hezeegia aurkitu dugu baina eguraldiaren eraginez izan da.

Gure konposterara kanpoko gauzak botatzen dituzte, adibidez, umeen pardelak.

Eguerdietako tarteak aprobetxatzen ditugu konposta egiteko, ez dugu denbora gehiegi izaten. Zenbaitetan LHko lehen mailetako ikasleak ere arduratzen dira konpostaz (hauek ontzira justu iristen dira altueragatik). Gogoa ere erabatekoa ez diogu jarri datuak biltzeari eta egia esan lan zaila egin zaigu eguneroko martxan txertatzeko.

Pisuarekin arazoak. Baratzeko tailerrekoek landareak botatzea sustrai eta guzti.


Ez dugu egin

Ez.

PROIEKTUA OROKORREAN

1- Baloratu ikasleen asebetetze maila proiektuarekiko

8 respuestas



2- Datorren ikasturtean ZiSaren jarraituko duzue?

8 respuestas



3-Orokorrean proiektuarekin aurkitutako ZAILTASUNAK ezagutzea gustatuko litzaiguke: isurketak egiterako orduan, datuak hartzerako orduan, laguntza falta...

5 respuestas

Usaina, naska....kontuak direla eta batzutan kosta izan da ikasle/irakasleek ondo egitea isurketa....
Datuak oso berandu hasi ginen biltzen, beraz oso gtxitan bildu ditugu. Gainera neurketak ono egitea ikasleei ez zaie gustatzen. Berdina, usaian, naska.... kontuak direla eta....
Baina egin ditugu denak eta positibotzat jotzen dugu.... Hau ere ezagutu behar dutela sinisten dugu.... Baina ez dakit sensibilizatzea lortze ote den....

Guk ez daukagu aipatzeko moduko zailtasunik. Laguntza edo aholkularitza behar izan dugunean. beti jaso dugu eta horrek asko errezten du guztia.

Oso erraza izan da lankidetza, egin diguzuen eskaintza ere kalitatezkoa izan da.

Ondo moldatu gara. LH4ko bi taldeak nahastuta taldeak egin genituen eta txandaka ibili gara. Sukaldeko arduradunak asko laguntzen digu, eta ikasleek berehala hartu zuten martxa.

Ez ditugu zailtasunik izan.

4-Zuen PROPOSAMENAK, EKARPENAK, IRADOKIZUNAK ezagutu nahi ditugu!

3 respuestas

Gu oso gustura gaude Zisare eta Artelatzekin. Eskerrik asko.

Jator izateak bidea beti errazten du eta zuekin lana egiteko modua hori izan da. Gurean egia da ez dela erabateko pisuzko proiektua eskola mailan eta jada barneratua dugula. Ikasturte hasierako eta amaierako bilera presentzialak, proiektua ezagutzen denean, agian ez eginda ere funtziona daiteke.

Balorazio bilera Eskolako ordutegitik kanpo izatea nahiko genuke. Ornogabeen inguruan ikasleekin egindako tailerra oso-oso ona! Eskerrik asko, Artelatz, eskerrik asko, Olatz!

HIRI-HONDAKINEN MURRIZKETA, BERRERABILTZEA ETA BIRZIKLATZEA, ETA KONPOSTAJEA EZARTZEKO KANPAINAKO BUKAERAKO MEMORIA

1.0 Bertsioa

2024/06/12

AURKIBIDEA

1 PROGRAMAREN HELBURUAK 4

2 KRONOGRAMA 4

3 EGINDAKO LANAK 5

3.1 HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU 5

3.1.1 UNITATE DIDAKTIKOA 5

3.1.2 3REN HITZALDI-TAILERRA 6

3.1.3 GARBIGUNERA BISITA 8

3.2 KONPOSTAJEA 11

3.2.1 UNITATE DIDAKTIKOA 11

3.2.2 ESKOLAKO KONPOSTAJEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA BURUTZEKO JARDUERA PROTOKOLOA 12

3.2.3 LEHEN HEZKUNTZAKOEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK 12

3.2.4 LABORATEGIKO ENTSEGUA 12

3.2.5 ESKOLETAKO KONPOSTA GUNEEN JARRAIPENA 12

3.3 PRENTSA OHARRAK 15

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK 15

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA JARRAITUTAKO KRONOGRAMA 4
2. IRUDIA UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA 5
3. IRUDIA HITZALDIETAKO DATU OROKORRAK 6
4. IRUDIA 3R HITZALDI-TAILERRAREN ARGAZKIAK 7
5. IRUDIA GARBIGUNEKO BISITEN DATU OROKORRAK 8
6. IRUDIA ORIOKO ETA ZARAUZKO GARBIGUNEEN BISITEN ARGAZKIAK 8
7. IRUDIA UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA 11
8. IRUDIA LABORATEGIKO ENTSEGUEN DATUAK 12
9. IRUDIA IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKO BISITEN DATUAK 12
10. IRUDIA ESKOLA EZBERDINEN KONPOSTA GUNEAK 13
11. IRUDIA BEHATUTAKO GORABEHEREN ARGAZKI BATZUK 14

1 PROGRAMAREN HELBURUAK

Dokumentu honen bitartez, hiri hondakinen murrizketa, berrerabiltzea eta birziklatzea, baita konpostajea ezartzeko kanpainak jasotako emaitzak biltzen dira. Programak 2023-2024 ikasturtearen iraupena izan du, izan ere **2023eko irailean hasi eta 2024eko ekainean amaitu da**, Urola Kostako udalerrietan hainbat ekintza gauzatu direlarik.

Programa honen helburua eskualdeko ikasleei hondakinak sorkuntza prebenitzeko eta behar bezala kudeatzeko tresnak ematea izan da. Izan ere, programak hondakinen ondorengoko esparruetan lantzea bilatu du: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea alde batetik, eta konpostajea, beste aldetik. Jarraian esparru bakoitzeko xede espezifikoak azaltzen dira:

Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzearekin lotutako helburuak:

- **Sortzen ditugun hondakinen inguruan sentsibilizatzea.**
- **Hondakinak murriztu, berrerabili eta ondo bereizi daitezen eta hondakinen gaikako bilketa-zerbitzuak erabil daitezen bultzatzea.**
- **Ikasleen artean ingurumen-kontzientzia bultzatzea.**

Konpostajea ezartzeari dagokionez, hauek dira helburuak:

- **Udalean konpostajea bultzatzea, materia organikoa kudeatzeko alternatiba gisa.**
- **Ikastetxeetako langileei eta ikasleei konpostaren bidez ikastetxean sortutako materia organikoa kudeatzearen garrantzia azaltzea.**
- **Ikastetxeko langileak eta ikasleak udaleko hondakinak kudeatu eta balorizatzeko lanean inplikatzea, sortzen dituzten hondakin organikoak tratatuz.**

Jarraian, programaren baitan egindako sentsibilizazio ekintza ezberdinak eta hauen emaitzak eta ondorioak adierazten dira.

2 KRONOGRAMA

Programan antolatuta zeuden jarduera ezberdinak burutzeko, hurrengo kronograma jarraitu da.

1. Irudia ***JARRAITUTAKO KRONOGRAMA***

	Iraila				Urria				Azaroa				Abendua				Urtarrila				Otsaila				Martxoa				Apirila				Maiatza				Ekaina	
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2
Koordinazio orokorra																																						
3R jarduerak																																						
Hitzaldi informatiboaak																																						
Garbiguneko bisitak																																						
Garbiguneko bisitetarako protokoloa																																						
Unitate didaktikoa																																						
Konpostaje jarduerak																																						
Konposta guneko jarduera protokoloa																																						
Unitate didaktikoa																																						
Jarraipen teknikorako bisitak																																						
Konpostajeko tailerrak (prestaketa)																																						
Laborategiko entseguak																																						
Bukaerako txostena																																						
Kalitate kontrola																																						

3 EGINDAKO LANAK

Kanpainan bi esparruetako ekintzak burutu dira: alde betetik, hiri hondakinak murriztu, berrerabiltzeko eta birziklapena sustatzeko helburuarekin eta bestetik, konpostajearen ezarpena bultzatzeko helburuarekin. Jarraian, lan hauek burutu ahal izateko egin diren ekintzak azaltzen dira.

3.1 HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU

Jarraian, hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena sustatzeko asmoarekin burututako jarduerak azaltzen dira.

3.1.1 UNITATE DIDAKTIKOA

Erabilera bakarreko ontziek sor ditzaketen inpaktuak eta hauen alternatibak zabaltzeko helburuarekin, Vermicanek unitate didaktiko bat sortu du. Unitate didaktiko honek, eskualdeko ikastetxe guztientzako material eta hezkuntza baliabideak eskuragarri jartzen ditu, ikasgeletan zein egunerokotasunaren beste esparrutan erabilera bakarreko ontziak murriztea sustatzeko tresna erabilgarria izateko asmoz.

Unitate didaktiko honen helburu nagusia ikasleak erabilera bakarreko ontziak murrizteko sentsibilizatzea da.

2. Irudia ***UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA***



Proposatutako jarduerak hainbat kapitulutan banatzen dira, jorratutako gaiaren arabera:

1. Sarrera
2. Plastikoen arazoa
3. Zer egin dezakegu guk?

Unitate didaktikoa Urola Kostako ikastetxe guztiei bidali zaie haien programazioaren baitan erabili ahal izateko.

3.1.2 3REN HITZALDI-TAILERRA

Ikasleen artean hondakinen kudeaketa jasangarria bultzatzeko nahian, 3R-en (murriztu, berrerabili eta birziklatu) inguruko hitzaldiak antolatu dira ikasturteko abendu eta otsaila bitartean. Hitzaldiak 50 minutuko iraupena izan dute eta DBH1eko mailetara zuzenduak egon dira.

3. Irudia ***HITZALDIETAKO DATU OROKORRAK***

	Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia	Ikasle kopurua
1	Salbatore Mitxelena	Zarautz	15/12/2023	8:30-9:25	19
2	Salbatore Mitxelena	Zarautz	15/12/2023	9:25-10:20	17
3	Salbatore Mitxelena	Zarautz	15/12/2023	10:50-11:45	17
4	La Salle	Zarautz	18/12/2023	14:30-15:25	24
5	La Salle	Zarautz	18/12/2023	15:25-16:20	24
6	Jun Zaragueta	Orio	18/1/2024	14:30-15:25	17
7	Zumaiena	Zumaia	28/1/2024	8:05-9:00	17
8	Zumaiena	Zumaia	28/1/2024	9:00-10:05	20
9	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	9:25-10:20	20
10	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	10:35-11:25	19
11	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	11:25-12:15	21

	Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia	Ikasle kopurua
12	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	12:40-13:35	16
13	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	13:35-14:30	23
14	Orioko Herri Ikastola	Orio	2/2/2024	9:30-10:20	26
15	Orioko Herri Ikastola	Orio	2/2/2024	10:40-11:30	24
16	Orioko Herri Ikastola	Orio	2/2/2024	11:30-12:20	26
17	Antoniano Ikastetxea	Zarautz	29/02/2024	14:40-15:35	21
18	Antoniano Ikastetxea	Zarautz	29/02/24	15:35-16:30	19
					370

Guztira, 18 hitzaldi eman dira 7 ikastetxe ezberdinetan eta **370 ikasleek jaso dituzte**.

4. Irudia ***3R HITZALDI-TAILERRAREN ARGAZKIAK***









Hitzaldietan era dinamiko batean hondakinekin loturiko problematika landu da, kudeaketa jasangarriarekin zerikusitako kontzeptuak (murriztu, berrerabili eta birziklatu, aztarna ekologikoa, ekonomia zirkularra, etab.) eta hondakinak gutxitzeko aukera ezberdinak aurkeztuz.

3.1.3 GARBIGUNERA BISITA

Vermicanek eskualdeko garbiguneetara bisitak antolatu ditu apirilean zehar.

Bisita prestatzeko, Urola Kostako Udal Elkarteko prebentzio teknikariarekin bisitatu dira eskualdeko garbigune guztiak eta bisita protokolo bat prestatu da non bisitaren nondik norakoak zehaztu diren.

Bisitak Zarautz, Zumaia eta Orioko garbigunetan egiteko planteatu dira eta udalerri guztientzako ikastetxeei eskaini zaizkie, baina Zumaiako udalerriko ikastetxeek ez dute parte hartu nahi izan, beraz Zarautz eta Oroko garbiguneak baino ez dira bisitatu.

5. Irudia ***GARBIGUNEKO BISITEN DATU OROKORRAK***

Udalerria	Ikastetxea	Data	Ordutegia	Ikasle kopurua
Zarautz	Antoniano Ikastetxea	2024-04-17	10:30-11:15	16
	Antoniano Ikastetxea	2024-04-29	10:30-11:15	16
	Orokieta	2024-04-22	10:30-11:15	18
	Orokieta	2024-04-23	10:30-11:15	19
	Orokieta	2024-04-25	10:30-11:15	16
	Orokieta	2024-04-26	10:30-11:15	19
	La Salle	2024-04-15	10:30-11:15	26
	La Salle	2024-04-18	10:30-11:15	26
	Salbatore Mitxelena	2024-04-16	10:30-11:15	24
	Salbatore Mitxelena	2024-04-19	10:30-11:15	25
	Salbatore Mitxelena	2024-04-24	10:30-11:15	23
Orio	Orioko Herri Eskola	2024-04-08	10:00-10:45	19
	Orioko Herri Eskola	2024-04-11	10:00-10:45	19
	Orioko Herri Eskola	2024-04-11	11:00-11:45	19
				285

Bisitak LH4 eta LH5-eko ikasleei zuzenduta egon dira eta 45 minutuko iraupena izan dute. Guztira, 5 ikastetxeek bisitatu dituzte Zarauzko eta Orioko garbiguneak, hau da, **285 ikasle**.

6. Irudia ***ORIOKO ETA ZARAUZKO GARBIGUNEEN BISITEN ARGAZKIAK***








EGURRA
MADERA



3.2 KONPOSTAJEA

Konpostajearen ezarpenaren inguruko lanei dagokionez, jarraian azaltzen dira eginiko lanak.

3.2.1 UNITATE DIDAKTIKOA

Konpostajea ezartzeko eta horren jarraipena egiteko helburuarekin, Vermicanek unitate didaktiko bat sortu du. Unitate didaktiko honek, eskualdeko ikastetxe guztientzako material eta hezkuntza baliabideak eskuragarri jartzen ditu, ikasgeletan konpostajea ezagutu eta hau ezartzeko baliabideak eskaintzeko helburuarekin.

Konkretuki, unitate didaktiko honen bitartez ikasgelan garatu beharreko kontzientziazio jarduera batzuk aurkezten dira. Jarduerak hezkuntza maila desberdinetara egokitzeko diseinatuta daude, bai helburuetan, bai erabili beharreko dinamiketan.

7. Irudia ***UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA***



Unitate didaktikoa Urola Kostako ikastetxe guztiei bidali zaie haien programazioaren baitan erabili ahal izateko.

3.2.2 ESKOLAKO KONPOSTAJEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA BURUTZEKO JARDUERA PROTOKOLOA

Vermicanek Eskolako konpostajearen jarraipena eta kontrola burutzeko jarduera protokolo bat prestatu eta eskola parte hartzailei helarazi die, konpostajearekin lotutako zereginen oinarri moduan erabil dezaten.

3.2.3 LEHEN HEZKUNTZAKOEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK

Vermicanek lehen hezkuntzarako 6 tailer diseinatu ditu konpostajeari buruz. Baliabide horiek behar duten ikastetxeei emateko, udal elkartearen hedatze-bideak (web orria) erabili dira.

Tailer bakoitzean beharrezkoak diren baliabideen zerrenda, lortu nahi diren helburuak, onurak, eskatutako adin-maila, jardueraren deskribapena, baliabide materialak, etab. barneratzen ditu.

3.2.4 LABORATEGIKO ENTSEGUA

Vermicanek konpostaren ahalmena eta onurak ezagutarazteko laborategiko entsegu bat diseinatu eta DBH1eko klaseetan egin du.

8. Irudia ***LABORATEGIKO ENTSEGUEN DATUAK***

Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia	Saioaren iraupena	Ikasle kopurua
La Salle	Zarautz	11/4/2024	14:30-15:25	55 min	23
La Salle	Zarautz	11/4/2024	15:25-16:20	55 min	22
Zumaiena	Zumaia	17/4/2024	12:20-13:15	55 min	19
Zumaiena	Zumaia	17/4/2024	13:15-14:10	55 min	20
Antoniano Ikastetxea	Zarautz	18/04/2024	14:30-15:25	55min	21
Antoniano Ikastetxea	Zarautz	18/04/24	15:25-16:20	55min	20
					125

Tailerrak apirilan zehar egin dira eskualdeko 3 ikastetxe ezberdinetan. Guztira, **125 ikasle izan dira tailerra jaso dutenak**.

3.2.5 ESKOLETAKO KONPOSTA GUNEEN JARRAIPENA

Konpostajea egiten duten eskolei euren konposta guneei ikasturtean zehar lau jarraipen bisita egitea eskaini zaie. Bisiten helburua, ikastetxeei konpostaje prozesuan laguntza eta aholkularitza eskaintzea da, izan ditzaketen zalantza posibleak argituz, baita gorabeherak izatekotan hauek konponduz ere.

9. Irudia ***IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKO BISITEN DATUAK***

Ikastetxea	1. Bisita	Ordua	2. Bisita	Ordua	3. Bisita	Ordua	4. Bisita	Ordua
Antoniano Ikastetxea	19/10/2023	12:30	11/12/2023	12:30	21/03/2024	10:00	05/06/2024	11:45
Lizardi BHI	16/10/2023	9:30	12/12/2023	15:00	21/03/2024	9:30		

Ikastetxea	1. Bisita	Ordua	2. Bisita	Ordua	3. Bisita	Ordua	4. Bisita	Ordua
Orokieta HLHI	16/10/2023	11:00	11/12/2023	13:00	21/03/2024	10:30	05/06/2024	11:15
La Salle	18/10/2023	12:00	14/02/2024	14:00	21/03/2024	9:00	05/06/2024	11:15
Salbatore Mitxelena	16/10/2023	12:30	01/12/2023	13:30	21/03/2024	11:00	05/06/2024	12:45
Zumaiena	09/10/2023	9:30						
Oikia HLHI	09/10/2023	11:30	29/11/2023	15:00	21/03/2024	13:00	06/06/2024	12:00
Zumaia BHI	20/10/2023	10:30	28/11/2023	14:00	22/03/2024	11:30	06/06/2024	11:30
Iturzaeta	11/10/2023	9:45			22/03/2024	11:00	06/06/2024	11:00
Orioko Herri Eskola	19/10/2023	11:00	11/12/2023	13:30	21/03/2024	11:45	05/06/2024	13:45
Juan Zaragueta	10/10/2023	9:00	11/12/2023	14:00	21/03/2024	12:15	05/06/2024	13:45

Ikasturte honetan La Salleko ikastetxea programara atxikitu da, beraz guztira 11 ikastetxe parte hartzaile izan dira. Hala ere, momentu honetan Zumaienako ikastetxea eta Lizardiko institutua ez dira konpostajea egiten ari, eta ondorioz, bi eskola hauei ez zaizkie bisita guztiak egin: Zumaienakoei lehengo bisita soilik egin zaio eta Lizardiko institutuari lehenengo hirurak.

Bestalde, Iturzaetako eskola berandu hasi da konpostajea egiten, horregatik ez zaio bigarren bisitarik egin.

10. Irudia ***ESKOLA EZBERDINEN KONPOSTA GUNEAK***








Orokorrean, gorabehera gutxi ikusi dira eskoletako konposta guneetan eta hauek identifikatu direnean berehala konpondu dira. Gehien detektatutako intzidentziak hondar organiko freskoak gainazalean tapatu gabe uztea (euliak eta eltxoak erakartzen dituena) eta nahastearen tenperatura baxuak izatea izan dira.

11. Irudia ***BEHATUTAKO GORABEHEREN ARGAZKI BATZUK***




3.3 PRENTSA OHARRAK

Kanpainaren hasieran eta bukaeran, kanpainaren berri emateko bi prentsa ohar prestatu dira. Izan ere, hasierako prentsa oharra irailean helarazi zitzaion udal elkarteari eta azkenengoa, aldiz, ekainean bidali zitzaion.

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK

- Orokorrean, praktikoak izan diren jarduerak (hitzaldiak, tailerrak, bisitak) ikasle eta irakasleen artean gustukoak izan direla ondorioztatzen da ikasturtean zehar jasotako iritziengatik. Horrela, konpostajearen laborategiko entseguak eta garbiguneetara bisitek ikasleen jakinmina piztu eta ezagutzak era aktibo batean berenganatzea eragin dute.
- Bereziki azpimarratu nahi da ikasgeletatik kanpo egiten diren bisiten garrantzia, garbiguneko bisita kasu. Izan ere, bisita hori ikasleen artean eskualdeko hondakinen kudeaketa nola egiten den era praktiko eta dinamikoan ezagutzea ahalbidetu du.
- Orokorrean, ikastetxeetako konposta guneek ez dituzte gorabehera larririk aurkeztu ikasturtean zehar. Gehien detektatutako gorabehera biohondakin freskoak ez estaltzea izan da. Honen arrazoia irakasle batzuek konposta egiteko jarraibideen ezagutza falta dutela izan daiteke. Era berean, ikastetxe batzuetan konpostaje prozesua emateko beharrezko tenperaturak (altuak) lortzeko arazoak daudela ikusi da. Hori, eskola gehienek organiko ekarpen gutxi egiten dutelako da, apenas ekarpen bat astero, alegia.